



ACCUEIL COLLECTIF DE LA
PETITE ENFANCE

LEHEN HAURTZAROAREN
HARRERA KOLEKTIBOA

STRUCTURATION
D'UNE OFFRE DE SERVICES
EN LANGUE BASQUE

EUSKARAZKO
ZERBITZU ESKAINTZA BATEN
EGITURAKETA LANA

*3 labels pour ouvrir aux jeunes
enfants la voie du bilinguisme...*

*3 label, gazteak elebitasunaren
bidean jartzeko...*

L'enjeu de la transmission de la langue

Le 20 Décembre 2006, l'Office Public de la Langue Basque, Groupement d'Intérêt Public associant l'Etat, la Région Aquitaine, le Conseil Général des Pyrénées Atlantiques, le Conseil des Elus du Pays Basque, et le Syndicat Intercommunal de Soutien à la Culture Basque, a adopté un projet de politique linguistique fixant pour les années à venir, le cadre de la politique publique à mettre en œuvre en faveur de la langue basque.

Pour stopper le déclin de la langue et entrer dans une dynamique de développement, le projet de politique linguistique a identifié un objectif central, des locuteurs complets, et a défini un cœur de cible, les jeunes générations. L'ambition est donc d'accroître le nombre de personnes qui savent le basque, qui sont motivées pour le parler et qui le parlent effectivement dans leur vie quotidienne, en visant plus particulièrement les enfants et les jeunes, ceux par qui la revitalisation linguistique est en train de s'amorcer.

Les sociologues s'accordent à dire que la revitalisation d'une langue en danger nécessite en premier lieu d'assurer à nouveau sa transmission de génération en génération.

→ **La cellule familiale**, les professionnels chargés de **l'accueil de la petite enfance** et **l'école** constituent **les trois leviers complémentaires** sur lesquels le projet de politique linguistique se propose d'agir simultanément, de façon à redynamiser et développer la transmission intergénérationnelle de la langue basque.

Le rôle stratégique des structures et des professionnels de la petite enfance

Relais de la famille, les structures et les professionnels chargés de l'accueil de la petite enfance occupent une place de plus en plus importante au sein de notre société. Pendant la durée de garde, l'enfant est exposé à une ou plusieurs langues, celle(s) pratiquée(s) par la ou les personnes qui en ont la charge. Cette exposition aura un impact variable, jamais négligeable, souvent important. Dans un contexte où la majorité des familles vivant au Pays Basque ne sont pas bascophones, où la transmission familiale de la langue se fait difficilement, y compris au sein des familles bascophones, où les parents désireux de transmettre la langue à leurs enfants ne sont pas toujours en capacité de le faire faute d'un niveau de maîtrise suffisant de la langue, où enfin le temps passé par l'enfant en dehors de la cellule familiale s'est accru, les professionnels chargés de l'accueil de la petite enfance constituent un relais particulièrement stratégique pour la transmission de la langue.

→ L'enjeu consiste dès lors à construire avec les structures et les professionnels de la petite enfance, une offre de services en langue basque, venant soutenir la transmission de la langue. **L'objectif est d'offrir la possibilité, aux familles qui le souhaitent, de faire appel à des professionnels de la petite enfance utilisant la langue basque avec leurs enfants.**

En fonction de la typologie linguistique des familles, en fonction de la langue parlée au sein de la cellule familiale, en fonction enfin de la durée passée par l'enfant avec les personnes auxquelles il est confié, ces professionnels utilisant la langue basque constituent selon les cas, soit un soutien à la transmission familiale, soit le premier vecteur de transmission à un stade de vie de l'enfant où l'acquisition linguistique se fait de manière naturelle, à l'âge du langage.

Euskara transmititzearen erronka

2006ko abenduaren 20ean, Interes Publikoko Elkargoaren baitan Estatua, Pirinio Atlantikoetako Departamendua, Akitaniako Eskualdea, Hautetsien Kontseilua eta Euskal Kultura Sustengatzen duen Herri arteko Sindikatua biltzen dituen Euskararen Erakunde Publikoak, euskararen aldeko Hizkuntza Politika Proiektu bat onartu zuen, datozen urteentzat finkatuz euskararen eremuan ariko diren politika publikoen koadroa.

Euskararen beherakadaren eteteko eta garapen dinamika batean sartzeko, hizkuntza politika proiektuaren helburu nagusia da hiztun osoen sortzea, gazte belaunaldiak lehenetsiz. Helburua, Euskara dakiten hiztun kopuruaren biderkatzea da, hots, egunekotasunean euskararen erabilpena indarrean jartzeko nahikeria dutenen emendatzea, horretarako gazte belaunaldiengana joz, haietarik hasten baita hizkuntzaren biziberritze prozesua.

Soziologokoen arabera, lanjerrean dagoen hizkuntza baten biziberritzeko, belaunaldi arteko transmisioa berpiztu behar da.

→ **Familia, lehen haurtzaroaren harreran** ari diren profesionalak, **eta eskolak, hiru transmisio gune estrategiko osatzen dituzte**, bata bestearekiko osagarriak direnak. Hizkuntza politika proiektuak 3 eremu horietan aldi berean eragin behar du, euskararen transmisioaren berpizteko

Lehen haurtzaroaren harrera gune eta profesionalen funtzio estrategikoa

Familiarekin zubia eginez, lehen haurtzaroaren harreraz arduratzen diren egiturek eta profesionalak toki gero eta zabalagoa hartzen dute gure gizarte honetan. Orduan, zaindua den denboran, haurra hizkuntza batean edo gehiagotan murgildua izanen da, zaintzeaz arduratzen d(ir)en pertsonak/(ek) mintzatzen du(t)ena hain zuzen ere. Murgiltze horrek nola edo halako eragina ukanen du, nehoiz ez gutxiestekoa, usu garrantzitsua. Euskal Herrian bizi diren familien gehiengoa ez da euskalduna, familiaren bidezko transmisioa nekez egiten da familia euskaldunetan ere, eta hizkuntza beren hurrei irakatsi nahi dieten gurasoek batzuetan ezin dute hizkuntza gaitasun eskasagatik. Aldi berean, haurrek familiaratik kanpo pasatzen duten denbora emendatu da. Ondorioz, lehen haurtzaroaren harreraz arduratzen diren profesionalak zubi guztiz estrategikoa osatzen dute hizkuntzaren transmisiorako.

→ Ondorioz, Hizkuntzaren transmisioa lagunduko duen lehen haurtzaroko egitura eta profesionalekin euskarazko zerbitzu eskaintza baten egituratzea ezinbestekoa agertzen da. **Helburua da, nahi duten familiei**, beren haurrekin euskaraz ariko diren profesionalen **hautatzeko aukera eskaintzea**.

Hizkuntza tipologiaren arabera, familian mintzatua den hizkuntzaren arabera, haren ardura duten pertsonekin haurrak iragaten duen denboraren arabera, euskara erabiltzen duten profesionalek, hizkuntza transmititze prozesuan funtzio ezberdina beteko dute : kasuaren arabera, familia baitako transmisioaren sustengu izanen dira, edo berdin transmisiorako lehen eragilea, haurrak hizkuntzaz jabetzea oraino molde naturalean egiten duen garai batean, hots "hizkuntzaren adinean".

La structuration d'une offre de services en langue basque

Les axes du Projet de Politique Linguistique se mettent en œuvre progressivement. L'adoption et la diffusion par l'OPLB du présent document vise avant tout à structurer l'organisation d'une offre de services en langue basque dans le cadre des établissements assurant l'accueil collectif non permanent d'enfants (précédemment dénommés crèches et haltes garderies).

Ce document a fait l'objet d'un travail partenarial avec les services des CAF de Bayonne et de la PMI,

↳ afin que la politique mise en œuvre par l'OPLB s'inscrive en cohérence avec les autres dispositifs publics et cadres réglementaires régissant l'accueil collectif des jeunes enfants dans des structures spécialisées,

↳ dans le double objectif d'assurer la transmission de la langue, tout en garantissant la qualité de l'accueil.

Il s'adresse à tous les responsables des structures d'accueil existantes ou en projet souhaitant, dans le respect du libre choix des familles, proposer une offre de services en langue basque. Les opérateurs qui le souhaitent, sont invités à définir leur projet linguistique, en prenant appui sur un des **3 modèles de référence** suivants :

Modèles A : les professionnels de la structure offrent un accueil individualisé en basque ou en français, selon le choix des familles.

Modèle B : l'accueil est assuré en langue basque pour l'ensemble des enfants fréquentant la structure

Modèle C : l'accueil est assuré paritairment en langue basque et en français

Chacun de ces trois modèles de référence fait l'objet d'un cahier des charges précisé en annexe.

Euskarazko zerbitzu eskaintza baten egituraketa

Hizkuntza politika proiektuko lan ardatzak obratzen doaz. Dokumentu honen onartzearen eta hedatzearen helburua, lehen haurtzaroaren behin behineko harrera kolektiboan euskarazko zerbitzu eskaintza baten egituratzea da (lehen haurtzaindegiak).

Dokumentu hau Baionako CAFa eta PMIarekin landu da,

↳ lehen haurtzaroaren harrera kolektiboan, eskudun diren gainerateko antolaketa publiko eta araudiekin koherentzian eramana izan dadin EEPren politika,

↳ hizkuntzaren transmisioarengan eragitearekin batera, kalitatezko harrera baten segurtatzeko helburu bikoitzarekin.

Familien hautu librea bermatuz, euskarazko zerbitzu bat proposatu nahi luken harrera egituretako arduradun orori zuzentzen zaio dokumentu hau, harrera gunea sortzeaz izan dadin ala jadanik irekia. Beren hizkuntza proiektua **hiru eredu** horietako baten arabera definitzera gonbidatzen ditugu, euskarazko harrera bat eskaini nahian dabiltzan eragileak :

A eredua : egiturako profesionalek, harrera bakoiztua eskaintzen dute, euskaraz ala frantsesez familiaren hautuaren arabera

B eredua : harrera euskaraz egiten da, egituran dagoen haur ororentzat

C eredua : harrera segurtatua euskaraz eta frantsesez, parekotasunean, egituran dagoen haur ororentzat

Erreferentziazko eredu bakoitzak badu bere kargu kaiera eranskinean emanik.

Le dispositif envisagé

Afin de faciliter la lisibilité de l'offre, et permettre aux familles de se positionner en toute connaissance de cause, il sera mis en place **une procédure de labellisation conduite par l'OPLB en partenariat avec le Conseil Général, la CAF, et la MSA des Pyrénées Atlantiques.**

Les modalités de mise en œuvre de cette procédure pourront être activées pour des structures d'accueil existantes ou en projet.

▪ Concernant les structures d'accueil existantes :

Le label A, B ou C sera accordé par un comité technique d'attribution des labels et de suivi des établissements labellisés au regard des critères fixés par le cahier des charges et à l'examen d'un dossier de labellisation présenté par l'organisme gestionnaire de la structure, qu'il soit public, privé, ou associatif.

Le comité technique des labels pourra également être sollicité par des structures d'accueil ne répondant pas dans un premier temps aux critères requis mais visant à terme l'un des trois labels.

Dans ce cas de figure, seront identifiées les mesures techniques à mettre en œuvre par l'opérateur pour progresser vers l'objectif fixé.

▪ Concernant les structures d'accueil en projets

Tout projet de structure devra par ailleurs s'inscrire dans le respect des procédures existantes relatives à l'accueil collectif des jeunes enfants. La réalisation d'un diagnostic partagé du territoire concerné reste l'étape incontournable de vérification de faisabilité du projet. La demande des familles pour un accueil en langue basque devra être clairement identifiée.

Les promoteurs d'un projet de création de structure souhaitant organiser un accueil en langue basque seront informés des trois modèles de référence et de la possibilité de structurer leur projet linguistique en s'appuyant sur l'un des trois.

Pour choisir entre les 3 modèles, les promoteurs du projet devront tenir compte de l'environnement dans lequel ils se situent, des structures d'accueil déjà existantes dans le secteur, des éléments du projet éducatif et social qu'ils souhaitent privilégier...

Compte tenu du contexte global d'une offre de services à ce jour inférieur aux besoins recensés sur le territoire, la CAF n'accompagnera les projets du modèle B sur un secteur (territoire ayant la compétence petite enfance), que si l'offre existante dépasse le seuil de 10% (moyenne nationale de référence en matière de taux de couverture d'accueil collectif).

Si les porteurs du projet décident de construire un projet linguistique autour de l'un des trois labels, le comité technique des labels devra être saisi dès la genèse du projet et pour l'octroi du label dès l'ouverture de la structure.

Le comité technique d'attribution des labels et de suivi des établissements labellisés, sera composé de représentants de l'OPLB, de la CAF, du Conseil Général des Pyrénées Atlantiques, et de la MSA des Pyrénées Atlantiques, désignés par les instances décisionnelles respectives.

Ce comité technique des labels se dotera

↳ de procédures de suivi et d'évaluation de l'ensemble des projets linguistiques labellisés.

↳ d'outils partagés permettant l'échange d'informations sur les nouveaux projets et le suivi de l'évolution de l'offre d'accueil collectif sur le territoire.

L'OPLB apportera en amont de la saisie du comité, sur la partie dont il a la charge, un appui technique à tous les porteurs de projets qui s'inscriront dans cette démarche.

Le présent document fera l'objet de l'édition d'une plaquette grand public, présentant la démarche et les 3 labels retenus.

Aitzinikusitako antolaketa :

Eskaintzaren irakurgarritasunaren errazteko, eta familiek beren hautua elementu guziak ezagutzuz egin ahal izan dezaten, labelizatze **prozedura bat plantan jarriko dute EEPk, Kontseilu Orokorrak, Baionako eta Biarno-Xiberoko CAFek, eta Pirinio Atlantikoetako MSAk.**

Labelizatuak izan daitezke, jadanik dauden harrera kolektiboko egiturak, bai eta ere oraindik irekiak ez direnak :

- Dauden harrera egiturei dagokienez :

A, B edo C labela emana izanen da, labelen egozte eta egitura labelizatuen jarraipen batzorde tekniko batek erabakirik, kargu kaieretan zehaztu irizpideak errespetatuak direla begiraturik, eta eragileak aurkeztu labelizatze eskaera txostenaren azterketaren ondotik. Eskaera egiten duen eragilea, elkarte, pribatua ala publikoa izan daiteke.

Nahiz kargu kaierako irizpide guziak ez bete, egitura batek, labelen batzordeari dei egin diezaioke, hiru labeletariko bat galdeginez.

Kasu horretan, labelaren kargu kaieraren osoki betetzeko eragileak gauzatu beharko dituen helburuak finkatuko dira.

- Sortzearen diren harrera egiturei dagokienez

Proiektu orok lehen hautzaroen harrera kolektiboari buruzko araudi eta prozedurak errespetatu behar ditu. Dagoen lurraldearen diagnostiko partekatu baten egitea ezinbestekoa da, proiektuaren egingarritasunaren frogatzeko. Euskarazko harrera batendako, familien eskaera bat badagoela argiki identifikatu beharko da.

Euskarazko egitura bat sortu nahi duten eragileei, erreferentziazko hiru eredu berri emanen zaie, eta beren proiektuaren egituratzeko hiruetariko baten hautatzeko aukeren berri ere emanen zaie.

3 eredu baten hautatzeko tenorean eragileak kontutan hartu beharko ditu besteak beste: harrera egitura kokatzen den ingurunea, bertako gainerateko harrera egiturak, hezkuntza eta gizarte proiektuan lehenetsi nahi diren elementuak...

Ikusirik lurraldeko eskaintza eskaera baino apalagoa dela gaur egun, CAFak, B ereduko egiturak lagunduko ditu baldin eta lekuko (lehen hautzaroko eskuduntza duen lurraldea) eskaintza gutxienez %10ekoa bada (harrera kolektiboaren estaldura tasaren batz bestekoa Frantzia mailan).

Hiru labeletariko baten inguruan bere proiektu linguistikoaren eratzea erabakitzen baldin badu eragile batek, labelen batzorde teknikoari dei egin beharko dio proiektuaren hasieratik, eta egitura irekitzen den unean labelaren egozteari doakionez.

Labelen egozte eta egitura labelizatuen jarraipen batzorde tekniko osatuko dute EEPko, Baionako eta Xibero-Biarnoko CAFetako, Kontseilu Orokorreko eta Pirinio Atlantikoetako MSAko ordezkariak. Ordezkariak beren erakundeetako atal erabakitzailleek izendatuko dituzte. Labelen egozte eta jarraipenaren batzordeak eratuko ditu :

- ↳ egitura labelizatuen jarraipenerako eta ebaluatzeko prozedurak

- ↳ lurraldeko harrera kolektiboaren eskaintzaz eta proiektu berriei buruzko informazioaren trukatzeko tresna partekatuak

Batzordea deitua izan aitzin, EEPk, beregain duen partearentzat, laguntza tekniko bat emanen dio, labelizatze prozeduran sartu nahi duen eragileari.

Dokumentu hau abiapuntu harturik, publiko zabalari zuzenduko zaion komunikazio dokumentu bat plazaratuko da 3 labelen egitasmoaren aurkezteko.

Délibération :

Les membres du Conseil d'Administration approuvent les éléments portés dans le présent document et autorisent le Président à signer le projet de convention ci-joint avec le Conseil Général des Pyrénées Atlantiques, les CAF de Bayonne et de Béarn et Soule et la MSA des Pyrénées Atlantiques.

Erabakia:

Administrazio Kontseiluko kideek dokumentu honetako elementuak onartzen dituzte, eta baimena emaitan diote lehendakariari ondoko hitzarmenaren izenpetzeko, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra, Baionako eta Biarno-Xiberoko CAFekin eta Pirinio Atlantikoetako MSArekin batera.

**CONVENTION RELATIVE A LA STRUCTURATION D'UNE OFFRE DE SERVICES
EN LANGUE BASQUE
DANS L'ACCUEIL COLLECTIF DE LA PETITE ENFANCE**

**LEHEN HAURTZAROAREN HARRERA KOLEKTIBOAN
EUSKARAZKO ZERBITZU ESKAINTZA BATEN EGITURATZEKO HITZARMENA**

Entre les soussignés:

La CAF de Bayonne, représentée par son Président XXXXXXX en vertu de la délibération du Conseil d'Administration du XXXXX

Et

La CAF de Béarn et Soule, représentée par son Président XXXXXXX en vertu de la délibération du Conseil d'Administration du XXXXX

Et

La MSA des Pyrénées Atlantiques représentée par son Président XXXXXXX en vertu de la délibération du Conseil d'Administration du XXXXX

Et

Le Conseil Général des Pyrénées Atlantiques, représenté par son Président XXXXXXX en vertu de la délibération de la Commission Permanente du

Et

L'Office Public de la Langue Basque (ci-après désigné « l'OPLB »), représenté par son Président Monsieur **Max BRISSON**, en vertu de la délibération du Conseil d'Administration de l'OPLB du XXXXX,

Il est convenu et arrêté ce qui suit :

Honako hauek izenpeturik :

Baionako CAFak, XXXXXX, haren lehendakariaren eskutik, XXXXXko Administrazio Kontseiluak erabakirik,

Eta

Biarno eta Xiberoko CAFak, XXXXXX, haren lehendakariaren eskutik, XXXXXko Administrazio Kontseiluak erabakirik,

Eta,

Pirinio Atlantikoetako MSAk, XXXXXX, haren lehendakariaren eskutik, XXXXXko Administrazio Kontseiluak erabakirik,

Eta,

Pirinio Atlantikoetako Administrazio Kontseiluak, XXXXXX, haren lehendakariaren eskutik, XXXXXko Administrazio Kontseiluak erabakirik,

Eta

Euskararen Erakunde Publikoak (beherago "EEP" deitua), **Max BRISSON**, lehendakari jaunaren eskutik, XXXXXko Administrazio Kontseiluak erabakirik,

Honako hau onartu dute :

PREAMBULE

Le 20 décembre 2006, l'Office Public de la Langue Basque, Groupement d'Intérêt Public associant l'Etat, la Région Aquitaine, le Conseil Général des Pyrénées Atlantiques, le Conseil des Elus du Pays Basque, et le Syndicat Intercommunal de Soutien à la Culture Basque, a adopté un projet de politique linguistique fixant pour les années à venir, le cadre de la politique publique à mettre en œuvre en faveur de la langue basque.

Pour stopper le déclin de la langue et entrer dans une dynamique de développement, le projet de politique linguistique a identifié un objectif central, des locuteurs complets, et a défini un cœur de cible, les jeunes générations.

Les sociologues s'accordent à dire que la revitalisation d'une langue en danger nécessite en premier lieu d'assurer à nouveau sa transmission de génération en génération.

La cellule familiale, les professionnels chargés de l'accueil de la petite enfance et l'école constituent les trois leviers complémentaires sur lesquels ce projet de politique linguistique se propose d'agir simultanément, de façon à redynamiser et développer la transmission intergénérationnelle de la langue basque.

En fonction de la typologie linguistique des familles, en fonction de la langue parlée au sein de la cellule familiale, en fonction enfin de la durée passée par l'enfant avec les personnes auxquelles il est confié, les professionnels de la petite enfance utilisant la langue basque constituent selon les cas, soit un soutien à la transmission familiale, soit le premier vecteur de transmission à un stade de vie de l'enfant où l'acquisition linguistique se fait de manière naturelle, à «l'âge du langage».

L'objectif du Projet de Politique Linguistique est **d'offrir la possibilité, aux familles qui le souhaitent**, de faire appel à des professionnels de la petite enfance utilisant la langue basque avec leurs enfants.

Rendre effective cette possibilité nécessite de structurer une offre de services en langue basque dans le cadre des établissements assurant l'accueil collectif non permanent d'enfants.

L'organisation de cette **offre de services autour de 3 modèles de référence** clairement définis

SAR HITZA

2006ko abenduaren 20ean, Interes Publikoko Elkargoaren baitan Estatuak, Pirinio Atlantikoetako Departamendua, Akitaniako Eskualdea, Hautetsien Kontseilua eta Euskal Kultura Sustengatzen duen Herri arteko Sindikatua biltzen dituen Euskararen Erakunde Publikoak, euskararen aldeko Hizkuntza Politika Proiektu bat onartu zuen, datozen urteentzat finkatuz euskararen eremuan ariko diren politika publikoen koadroa.

Euskararen beherakadaren eteteko eta garapen dinamika batean sartzeko, hizkuntza politika proiektuaren helburu nagusia da hiztun osoen sortzea, gazte belaunaldiak lehenetsiz.

Soziologokoen arabera, lanjerrean dagoen hizkuntza baten biziberritzeko, belaunaldi arteko transmisioa berpiztu behar da.

Familia, lehen haurtzaroaren harreran ari diren profesionalak, eta eskolak, hiru transmisio gune estrategiko osatzen dituzte, bata bestearekiko osagarriak direnak. Hizkuntza politika proiektuak 3 eremu horietan aldi berean eragin behar du, euskararen transmisioaren berpizteko.

Hizkuntza tipologiaren arabera, familian mintzatua den hizkuntzaren arabera, haren arduraren duten pertsonekin haurrak iragaten duen denboraren arabera, euskara erabiltzen duten profesionalak, hizkuntza transmititze prozesuan funtzio ezberdina beteko dute: kasuaren arabera, familia baitako transmisioaren sustengu izanen dira, edo berdin transmisiorako lehen eragilea, haurrak hizkuntzaz jabetzea oraino molde naturalean egiten duen garai batean, hots "hizkuntzaren adinean".

Hizkuntza Politika Proiektuaren helburua da, **nahi duten familiei**, beren haurrekin euskaraz ariko diren profesionalen **hautatzeko aukera eskaintzea**.

Aukera horren gauzatzeko, behin behineko harrera egituretan euskarazko zerbitzu eskaintza bat antolatu behar da.

Argiki definituak diren **hiru erreferentziazko ereduren inguruan zerbitzu eskaintza** hori

(cf. cahier des charges en annexes) permettra de guider la réflexion des promoteurs de nouveaux projets qui souhaiteraient intégrer le bilinguisme et de garantir aux familles la lisibilité nécessaire au respect de leur libre choix.

ARTICLE 1 : OBJET DE LA CONVENTION

Dans le souci d'inscrire la structuration d'une offre de services en langue basque en cohérence avec l'ensemble des dispositifs publics et réglementaires en vigueur, l'OPLB, le Conseil Général des Pyrénées Atlantiques, les CAF de Bayonne et de Béarn et Soule si accord, la MSA des Pyrénées Atlantiques ont convenu la mise en place d'un comité technique d'attribution des labels et de suivi des établissements labellisés (dénommé comité technique des labels ci-après).

ARTICLE 2 : MISSIONS DU COMITE TECHNIQUE DES LABELS

Le comité technique des labels aura pour mission :

- La définition des procédures d'attribution des labels, en s'appuyant sur les cahiers des charges des trois modèles
- L'instruction des dossiers et l'attribution des labels
- Le suivi et l'évaluation de l'ensemble des projets linguistiques labellisés
- L'échange d'information sur les nouveaux projets et le suivi de l'évolution de l'offre d'accueil collectif sur le territoire, par la mise en place d'outils partagés
- La communication relative au dispositif de labellisation

ARTICLE 3: MODALITES DE SAISIE DU COMITE TECHNIQUE DES LABELS

La procédure de labellisation pourra être activée pour des structures d'accueil existantes ou en projet.

- Concernant les structures d'accueil existantes :
Le label A, B ou C sera accordé par le comité technique des labels au regard des critères fixés par le cahier des charges et à l'examen d'un dossier de labellisation présenté par l'organisme gestionnaire de la structure, qu'il soit public, privé, ou associatif.

antolatuz, proiektu elebidun baten xedea duen eragilea lagundu nahi da, eta familiak jakitate osoz beren hautuaren egiten lagundu nahi dira.

1 . ARTIKULUA : HITZARMENAREN XEDEA

Euskarazko zerbitzu eskaintzaren antolaketa lana, lehen haurtzaroaren eremuko gainerateko politika publikoekin koherentzian eramana izan dadin, labelen egozte eta egitura labelizatuen jarraipen batzorde tekniko baten plantan jartzea erabaki dute (beherago labelen batzorde teknikoa deitua) EEPk, Kontseilu Nagusiak, MSAk, Baionako CAFak eta Biarno eta Xiberokoak (adostasunaren zain).

2. ARTIKULUA : LABELEN BATZORDE TEKNIKOAREN EGITEKOAK

Honako hauek dira labelen batzorde teknikoaren egitekoak :

- Labelen egozte prozeduraren definitzea, hiru ereduaren kargu kaiera oinarri harturik;
- Txostenen azterketa eta labelen egozte
- Labelizatu egituren jarraipena
- Proiektu berriez eta lurralde mailako eskaintza orokorrari buruzko informaziorako tresna partekatuen plantan jartzea
- Labelizatzeko dispositiboari buruzko komunikazioa

3. ARTIKULUA : DESMARTXAREN ANIMAZIO LANA

Labelizatuak izan daitezke, jadanik dauden harrera kolektiboko egiturak, bai eta ere oraindik irekiak ez direnak :

- Dauden harrera egiturei dagokienez :
A, B edo C labela emana izanen da, labelen batzorde teknikoak erabakirik, kargu kaieretan zehaztu irizpideak errespetatuak direla begiraturik, eta eragileak aurkeztu labelizatzeko eskaera txostenaren azterketaren ondotik. Eskaera egiten duen eragilea, elkarte, pribatua

Le comité technique des labels, pourra également être sollicité par des structures d'accueil ne répondant pas dans un premier temps aux critères requis mais visant à terme l'un des trois labels.

Dans ce cas de figure, seront identifiées les mesures techniques à mettre en œuvre par l'opérateur pour progresser vers l'objectif fixé.

▪ Concernant les structures d'accueil en projets

Tout projet de structure devra par ailleurs s'inscrire dans le respect des procédures existantes relatives à l'accueil collectif des jeunes enfants. La réalisation d'un diagnostic partagé du territoire concerné reste l'étape incontournable de vérification de faisabilité du projet. La demande des familles pour un accueil en langue basque devra être clairement identifiée.

Les promoteurs d'un projet de création de structure souhaitant organiser un accueil en langue basque seront informés des trois modèles de référence et de la possibilité de structurer leur projet linguistique en s'appuyant sur l'un des trois.

Pour choisir entre les 3 modèles, les promoteurs du projet devront tenir compte de l'environnement dans lequel ils se situent, des structures d'accueil déjà existantes dans le secteur, des éléments du projet éducatif et social qu'ils souhaitent privilégier...

Compte tenu du contexte global d'une offre de services à ce jour inférieur aux besoins recensés sur le territoire, la CAF n'accompagnera les projets du modèle B sur un secteur (territoire ayant la compétence petite enfance), que si l'offre existante dépasse le seuil de 10% (moyenne nationale de référence en matière de taux de couverture d'accueil collectif).

Si les porteurs du projet décident de construire un projet linguistique autour de l'un des trois labels, le comité technique des labels devra être saisi dès la genèse du projet et pour l'octroi du label dès l'ouverture de la structure.

L'OPLB apportera en amont de la saisie du comité, sur la partie dont il a la charge, un appui technique à tous les porteurs de projets qui s'inscriront dans cette démarche.

ala publikoa izan daiteke.

Nahiz kargu kaierako irizpide guziak ez bete, egitura batek, labelen batzordeari dei egin diezaioke, hiru labeletariko bat galdegin.

Kasu horretan, labelaren kargu kaieraren osoki betetzeko eragileak gauzatu beharko dituen helburuak finkatuko dira.

▪ Sortzearen diren harrera egiturei dagokienez

Proiektu orok lehen haurtzararen harrera kolektiboari buruzko araudi eta prozedurak errespetatu behar ditu. Dagoen lurraldearen diagnostiko partekatu baten egitea ezinbestekoa da, proiektuaren egingarritasunaren frogatzeko. Euskarazko harrera batendako, familien eskaera bat badagoela argiki identifikatu beharko da.

Euskarazko egitura bat sortu nahi duten eragileei, erreferentziarako hiru ereduen berri emanen zaie, eta beren proiektuaren egituratzeko hiruetariko baten hautatzeko aukeren berri ere emanen zaie.

3 ereduatariko baten hautatzeko tenorean eragileak kontutan hartu beharko ditu besteak beste: harrera egitura kokatzen den ingurunea, bertako gainerateko harrera egiturak, hezkuntza eta gizarte proiektuan lehenetsi nahi diren elementuak...

Ikusirik lurraldeko eskaintza eskaera baino apalagoa dela gaur egun, CAFak, B ereduko egiturak lagunduko ditu baldin eta lekuko (lehen haurtzaroko eskuduntza duen lurraldea) eskaintza gutxienez %10ekoa bada (harrera kolektiboaren estaldura tasaren batz bestekoa Frantzia mailan).

Hiru labeletariko baten inguruan bere proiektu linguistikoaren eratzea erabakitzen baldin badu eragile batek, labelen batzorde teknikoari dei egin beharko dio proiektuaren hasieratik, eta egitura irekitzen den unean labelaren egoztari doakionez.

Batzordea deitua izan aitzin, EEPk, beregain duen partearentzat, laguntza tekniko bat emanen dio, labelizatze prozeduran sartu nahi duen eragileari.

ARTICLE 4 : COMPOSITION DU COMITE TECHNIQUE DES LABELS

La composition du comité sera la suivante :

- pour l' OPLB: 2 représentants ?
- pour Le CG : 2 représentants (PMI+Politique linguistique ?)
- pour la CAF de Bayonne et de Pau: 2 représentants ?
- pour la MSA des Pyrénées Atlantiques: 2 représentants ?

(à préciser)

ARTICLE 5 : FONCTIONNEMENT DU COMITE TECHNIQUE DES LABELS

L'OPLB assurera l'animation du fonctionnement du comité technique. Les frais et travaux de secrétariat qui y sont liés seront pris en charge par l'OPLB.

Le comité technique des labels se réunira chaque fois que les procédures de labellisation et d'évaluation le nécessiteront, et il produira une fois par an un bilan de ses activités à l'attention des instances décisionnelles des partenaires signataires des cinq institutions.

ARTICLE 6: DUREE DE VALIDITE - DENONCIATION

La présente convention est signée pour une durée de deux ans.

Elle peut être dénoncée par l'une ou l'autre des parties par lettre recommandée avec accusé de réception avec un préavis d'un mois.

ARTICLE 7 : MODALITES D'EVALUATION FINALE

Avant l'échéance de fin de la convention, les partenaires signataires procéderont à une évaluation qualitative et quantitative du travail mené afin qu'ils puissent apprécier ensemble l'opportunité de poursuivre, d'arrêter ou de modifier le dispositif.

4. ARTIKULUA : LABELEN BATZORDE TEKNIKOAREN OSAKETA

Batzordearen osaketa honako hau izanen da:

- EEPk: 2 ordezkari?
- Kontseilu Nagusiak : 2 ordezkari (PMI+Hizkuntza Politika saila ?)
- Baionako eta Paueko CAFek : 2 ordezkari ?
- Pirinio Atlantikoetako MSAk: 2 ordezkari ?

(zehaztekoa)

5. ARTIKULUA : LABELEN BATZORDE TEKNIKOAREN FUNTZIONAMENDUA

EEPk, segurtatuko du batzorde teknikoaren animazio lana. Batzordearen animazioari lotu idazkaritza lan eta gastuak EEPk ditu beregain hartuko ere.

Batzorde teknikoa bilduko da ebaluaketa edota labelizatze prozedura bat izanen den aldi oro. Eta urtean behin, haren jardueren bilduma bat eginen du, hitzarmen hau izenpetzen duten erakundeetako atal erabakitzaileentzat.

ARTICLE 6: IRAUPENA - SALAKETA

Hitzarmen horren iraupen bi urtekoa da.

Aldeetariko baten sala dezake, hilabete bateko epearekin, hartze agiridun gutun gomendatu baten bidez

7. ARTIKULUA : AMAIERAKO EBALUAKETA JARDUNBIDEA

Hitzarmena bukatu aitzin, egindako lanaren ebaluaketa kuantitatibo eta kualitatibo baten egitea beharrezkoa izanen da, hiru izenpetzaileek elkarrekin erabaki dezaten dispositiboa jarraitu, gelditu ala aldatzea.

ARTICLE 8 : MODIFICATION ET RESILIATION

Tout réajustement et toute modification des clauses à la présente convention devront faire l'objet d'un avenant.

Tout manquement aux clauses énoncées pourra entraîner, à tout moment, la résiliation de plein droit de la présente convention.

ARTICLE 9 : REGLEMENT DES LITIGES

En cas de litige pour l'application de la présente convention, les signataires décident de s'en remettre à la compétence exclusive du Tribunal Administratif de Pau.

Fait à, en cinq exemplaires,

le 2008

8. ARTIKULUA : ALDAKETA ETA DEUSEZTATZEA

Hitzarmen honetako klausulei edozein moldaketa eta aldaketa ekartzeko emendakin bat beharrezkoa izanen da.

Aipatu klausulen ez errespetatzeak, noiznahi izanik ere, hitzarmen honen eskubide osozko deuseztatzea ukan dezake ondorio.

9. ARTIKULUA : AUZIEN KONPONKETA

Hitzarmen honen aplikazioak sor litzakeen auzien konponketaren ardura Paueko Auzitegi Administratiboaren esku uztea erabakitzen dute hitzarmen honen sinatzaileek.

.....-n egina, hiru aletan,

2008koean

Annexe :

cahier des charges

des 3 modèles de référence

Eranskina :

Erreferentziazko 3 erduen

kardu kaiera

Modèle A	Modèle B	Modèle C
1. Choix linguistique et information des familles		
<ul style="list-style-type: none"> - Le projet linguistique est inscrit au projet d'établissement - Toutes les familles sont informées de la possibilité qu'offrent les professionnels de la structure d'établir avec leur enfant une relation individualisée en basque ou en français. - La langue choisie par la famille apparaît explicitement dans le dossier ou document d'inscription - Tous les enfants évoluent dans un environnement bilingue - Les professionnels s'adressent tout au long de la journée, en basque aux enfants dont les parents ont opté pour cette possibilité 	<ul style="list-style-type: none"> - Le projet linguistique est inscrit au projet d'établissement. Toutes les familles sont informées que leur enfant évoluera toute la journée dans un environnement bascophone - Si sa langue maternelle n'est pas le basque, dans les premiers temps de l'accueil, son intégration progressive sera facilitée par des échanges individuels qui se feront dans sa langue maternelle 	<ul style="list-style-type: none"> - Le projet linguistique est inscrit au projet d'établissement. Toutes les familles sont informées que leur enfant évoluera toute la journée dans un environnement bilingue, la moitié des professionnels de la structure s'exprimant toute la journée en basque et l'autre moitié en français - Un référent s'exprimant en basque et un référent s'exprimant en français sont présent au même moment dans un même espace - Durant les premiers temps de l'accueil, si l'on constate des problèmes de compréhension chez l'enfant le référent s'exprimant dans sa langue maternelle procède à la traduction des échanges individuels, le principe « un référent/une langue » étant toujours respecté
2. Echanges individuels et activités de groupes		
<ul style="list-style-type: none"> - Au sein des groupes d'enfants constitués, les échanges individuels se font dans la langue choisie par les familles dès l'inscription - Lors des activités en groupe les consignes collectives sont données dans chacune des deux langues 	<ul style="list-style-type: none"> - Au sein des groupes d'enfants constitués, les échanges collectifs et les échanges individuels se font en basque 	<ul style="list-style-type: none"> - Chaque groupe d'enfants est encadré par au moins 1 adulte francophone et un 1 adulte bascophone - Les échanges individuels se font dans les deux langues avec tous les enfants, selon le référent qui intervient - Lors des activités en groupe les consignes collectives sont données dans chacune des deux langues par chacun des référents
3. Signalétique		
<ul style="list-style-type: none"> - Pour A, B et C : la signalétique et l'affichage reflèteront la dimension plurilingue de la structure, et seront mis en place en deux langues. 		

4. Compétences linguistiques des personnels

- | | | |
|--|--|---|
| <ul style="list-style-type: none">- Dans le respect des taux d'encadrement et qualifications prévues par le décret du 1^{er} août 2000 et l'arrêté du 26 décembre 2000 : 100% du personnel d'encadrement et du personnel technique devra être bilingue | <ul style="list-style-type: none">- Dans le respect des taux d'encadrement et qualifications prévus par le décret du 1^{er} août 2000 et l'arrêté du 26 décembre 2000: 100% du personnel d'encadrement et du personnel technique devra être bilingue | <ul style="list-style-type: none">- Dans le respect des taux d'encadrement et qualifications prévus par le décret du 1^{er} août 2000 et l'arrêté du 26 décembre 2000:- Tout au long de la journée, 50% du personnel d'encadrement et du personnel technique devra être bascophone. Pour ce faire ce ratio de 50% de bascophones devra être atteint pour chacune des trois catégories de personnels suivants:<ul style="list-style-type: none">- les personnels titulaires de diplômes de puériculteur(-trice), d'auxiliaire de puériculture, d'éducateur(-trice) de jeunes enfants ou d'infirmier(e)- les personnels titulaires des diplômes de CAP Petite Enfance ou équivalents- les personnels non titulaires des diplômes spécialisés |
|--|--|---|

5. Le matériel pédagogique

- La structure d'accueil doit se munir du matériel nécessaire à la bonne application du projet linguistique : livres, CD, jeux...

6. Communication avec les familles

- Tout au long de la présence de l'enfant au sein de la structure d'accueil, les professionnels veilleront à communiquer avec les familles concernées en étant attentifs à leurs réactions et interrogations éventuelles, en les invitant à partager, par souci de cohérence, la mise en œuvre du projet linguistique de la structure (y porter intérêt, le valoriser, le prolonger lorsque cela est possible au sein de la structure familiale...)
- Par ailleurs, les professionnels de la structure veilleront à la présence de la langue basque dans les différents documents remis aux familles

7. Animations

- Dans l'organisation d'activités d'animation ponctuelles ou régulières (spectacles, conteurs, partenariats avec d'autres structures...) les professionnels veilleront au respect du projet linguistique: en basque pour le modèle B, dans un souci d'équilibre entre le basque et le français pour les modèles A et C

A eredia	B eredia	C eredia
1. Hautu linguistikoa eta familie informazioa		
<ul style="list-style-type: none"> - Egitasmo linguistikoa, egitura-proiektuan idatzia da - Familia guziak jakinean ezarriak dira, beren hautuaren arabera, egiturako profesionalek, haurrekin, buruz burukako harremanean frantsesez ala euskaraz egin dezaketela - Izen emate dokumentuan argiki idatzia da, familiek hautatutako hizkuntza zein den - Horretarako hautua egin duten familien haurrekin, profesionalak egun guzia euskaraz mintzatuko dira 	<ul style="list-style-type: none"> - Egitasmo linguistikoa, egitura-proiektuan idatzia da. Familia guziak jakinean ezarriak dira, beren haurra egun guzia euskarazko ingurune batean murgildua izanen dela - Integrazioaren errazteko, haurraren ama-hizkuntza euskara ez bada, harreraren hastapenean, buruz burukako harremana haurraren ama-hizkuntzan itzuliko da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Egitasmo linguistikoa, egitura-proiektuan idatzia da. Familia guziak jakinean ezarriak dira, beren haurra egun osoa ingurune elebidun batean murgildua izanen dela, profesionalen erdia egun osoan euskaraz ari baita, eta beste frantsesez - Euskaraz ari den erreferente bat eta frantsesez ari den erreferente bat, memento berean eta espazio bakarrean ari dira - Harreraren hastapenean, ulermen zailtasunak ageri badira, haurraren ama-hizkuntzan ari den erreferenteak buruz burukako solasak itzuliko ditu, erreferente bat/hizkuntza bat sistema errespetatuz beti ere
2. Buruzko burukako solasaldiak eta taldekako aktibitateak		
<ul style="list-style-type: none"> - Osatu taldeen baitan, buruz burukako solasaldiak, burasok hautatu hizkuntzan eginen dira - Taldekako aktibitateen kariatara emandako konsignak beti bi hizkuntzetan ematen dira 	<ul style="list-style-type: none"> - Osatu taldeen baitan, buruz burukako eta taldekako solasaldiak osoki euskaraz dira 	<ul style="list-style-type: none"> - Haur talde bakoitzarentzat, guttienez euskaraz ari den profesional bat eta frantsesez ari den profesional bat izanen da - Haur guzientzat, buruz burukako solasak hizkuntza batean zein bestean eginen dira, mintzo den erreferentea nor den - Taldekako aktibitateen kariatara emandako konsignak beti bi hizkuntzetan ematen dira, hots erreferente bakoitzak bere hizkuntza
3. Seinaletzak		
<ul style="list-style-type: none"> - A, B eta C ereduentzat, afixek eta seinaletzak egituraren eleaniztasuna islatu beharko dute, eta ondorioz bi hizkuntzetan eginen dira beti ere 		

4. Langilegoaren hizkuntza gaitasunak

- | | | |
|---|---|---|
| <ul style="list-style-type: none">- 2000ko agorrilaren 1eko dekretuak eta 2000ko abenduaren 26eko arauak finkatu irizpideak errespetatuz beti ere:
Langilegoaren %100ak elebiduna izan behar du | <ul style="list-style-type: none">- 2000ko agorrilaren 1eko dekretuak eta 2000ko abenduaren 26eko arauak finkatu irizpideak errespetatuz beti ere:
Langilegoaren %100ak elebiduna izan beharko du | <ul style="list-style-type: none">- 2000ko agorrilaren 1eko dekretuak eta 2000ko abenduaren 26eko arauak finkatu irizpideak errespetatuz beti ere:- Egun guzian, harreran ari den zein langilego teknikoaren %50a elebiduna izanen da. Horretarako %50eko tasa hori errespetatu beharko da hiru langile klase hauentzat:<ul style="list-style-type: none">- Haur artatzaile, Haur artatzailetzan laguntzaile, haur gazteen hezitzaile, edota erizain titulua duen langilegoa- Lehen Haurtzaroko CAPa edo hein bereko titulua duen langilegoa- Gainerateko langilegoa |
|---|---|---|

5. Ernatze materiala

- Eredu linguistikoaren gauzatzeko gisako materiala eskuratu beharko du egiturak: liburuak, KDak, jokoak...

6. Familiakilako komunikazioa

- Profesionalek egituran dauden haurren familiakilako komunikazioan arreta berezia jarriko dute, beren ihardukitze edota galderei erantzuteko, egiturak daraman eredu linguistikoa haiekin partekatzeko koherentzia baten bermatzeko gisan (proiektua balorizatu, etxean ere gauza dadin posible delarik...)
- Bestalde, familiei banatu dokumentuetan euskararen presentzia zainduko dute profesionalek

7. Animazioak

- Eredu linguistikoa errespetatuko da behin behineko animazioen antolatzeko tenorean (agerraldi, kontalari, beste egiturekiko lankidetzetan...): euskaraz eginen dira B ereduaren kasuan, euskara eta frantsesa orekatuz A eta C ereduentzat
-